

AITA LINO, EUSKEREAREN IRAKASLE



Ni, gure ZER illeroko Aldizkari onen irakurleen otsein apal nazan au, Orozko-Ibarra'ko Atxetako euskotar eta euskaldun izanez, iru urtetan gure bizkaiera ikasi ondoren, euskal izkuntzarako zaletasuna itzita, beste zeregin batzutara sartu nintzan, goimaillako zeregiñak ziralako. Gaztaroko indar zoli ta bizkorren zati bat, atzerrian eralgi bear izan neban. Nire nagusia, Bilbo'ra, Duestu'ra etorteko esan eustenean ba-nebazan 60 urte. Ona etorri ondoren, euskerearen alde lan egin bear nebala ikusirik, Euskaltzaindian atera neban irakasle-agiria. Orduan Bilbo'n argitaratzen zan AGUR aldizkarian idazten neban eta egunero arratsaldeetan irakastaldiak emoten nebazan. Igandeetan Bilbo'ko Gotzain-Eleizan dan parrokan apostolu-lana egiten nebala, emengo txanburuak, nik euskeraz idazten nekiala jakiñik, Igandeetako mezetan egiten diran irakurgaien laburpena idazteko eskatu eustan.

Egia esateko, ez neban uste ainbeste lan egiteko gai nintzanik, baiña orduantxe etorri jatan burura Akesolo'tar Lino nire lagun onak orraztu leikeazala nire Idazteun-adierazpenak. Ori izan zan nire ametsa eta orixe egin neban: Bederatzi urtetan liturjiko irakurgaiak idazten Aita Lino'ren ikasle izan nintzan.

Gero azalpen orrean bilduma egin eta argitaraeu nai izan neban, baiña zelan? Nondik lortu ori egiteko dirua? Gure Aldundegi aberatsak, jakiña, dirua parra-parra darabil... baiña bai zera... entzute bako lekaide txiki bategaitik diarua eralgi? Zalantza oneik izan arren lagun batzuk esan eusten ez nebala ezer galduko Aldundegi'ko Kultura-Saillaren zuzendaria dan Uribe-Etxebarria jaunari eskakizun egoki bat egiteagaz.

LETONA'k

IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guttietan lez aurtan be, ipuin-sariketea iragarten dau, **oiñarri-arauak** oneik dirala:

– **Ipuiñak** euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz **idatziak** izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmaurikoak edo errian **batuak** izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en **argitaratuko** dira. Saririk irabazten ez **dabena** be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14.2.^a, eskotia) **egon bear** dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita **DEIA Egunkarian** be al bait lasterren.

— Sariak lau izango dira:

- 1.^a 40.000 pezeta
- 2.^a 30.000 pezeta
- 3.^a 20.000 pezeta
- 4.^a 10.000 pezeta

— Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten **barruan** izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK